

IRUN IRUTEN EUSKARA ELKARTEAK DESEGITEA ERABAKI DU, ETA BABESA ETA ELKARTASUNA ADIERAZI DIZKIO BETTI GOTTI EUSKARA KULTUR ELKARTEARI.

Irun Iruten euskara elkarteak 1998an sortu zen, irabazi asmorik gabeko elkarte gisa. Sorrerako helburuak honela definitu zituen elkarteak:

" a) Irungo jendartean zabaltzea, hizkuntza ukitzen duten esparru guztietan, baina batez ere erabilera arautuari dagozkion esparruez kanpo; b) Irungo euskaldunen komunitatearen ideia sustatzea, euskaldunen arteko harreman sareak trinkotuaz; c) ideiez eta izaeraz askotariko den komunitatearentzat bilgune izatea, eta, askotarikotasun hori bere iharduera guztietan aintzat hartzea; d) euskararen inguruan gogoeta egingo duen eta bere iritzia libreki adieaziko duen elkarteak izatea".

Irun Iruten sortu eta ondoko urteetako lana bolondresgoak ahalabidetzen dituen ekimenen eta ezartzen dituen mugen barnean ulertu behar da. Urte haietako lana aldiari aldiko ekintzetan gauzatzen zen: Mintzalagunaren lehen edizioak, Irunen kantuz, olentzeroren ongi etorria...

2001. urtean sinatu zuen lehebizikoz hitzarmena Irun Iruten euskara elkarteak Irungo Udalarekin. Hitzarmen honen barnean burutu ahal izan ziren Mintzalaguna, Kultur Errota eta haur eta gazteentzako udalekuak. Lehentasuna haur eta gazteen euskalduntzean ipinita, udalaren Solas Jolas eta Kalean Bai programak ere kudeatu zituen. Ondoren antolatu ziren Irungo elkarteetako euskalduntze programak - Irungo 68 elkarterekin lankidetzan eta Eskola Kirolak formakuntza ikastaroak begiraleentzat, besteak beste.

Oso positiboa izan da urte hauetako guztietako emaitza, bai iharduera horien euskalduntzea, eta baita programa horien kalitatean ere.

Bidegurutzea: 2012. urtean jakin zuen Irun Iruten euskara elkarteak, batetik, udalak ez zuela Irun Irutenekin hitzarmena berrituko. Bestetik, Eskola kirola Programa enpresa baten eskuetan geldituko zela. Udalak garbi adierazi zuen "kostuak apaldu" beharrak Irun Irutenek aurkezten zuen eskaintza baztertzea ekartzen zuela. "Gure ikuspegitik, ez ginen prest zerbitzuaren kalitatea zalantzan jar zezakeen modu batean aritzeko".

Aipatzekoa da, bestetik, urte hauetan Irunen euskara aldeko elkartearen egoerak bere bidea egin duela, eta horien artean Betti Gotti euskara kultur elkartearen sorrera da aipagarriena, egun hauetan 10. urteurrena ospatuko duena.

Irun Iruten eragin esparrua aztertzeraz eta indarrak neurtzeraz eraman du egoera honek, eta hausnarketa prozesu honen ondorioz, 2013ko urrian egindako bazkideen bilkuran honako erabaki hauek hartu zituen elkarteak:

- Irun Iruten euskara elkarteak desegiteko lanak bideratzeko batzordea sortzea.
- Irun Iruten euskara elkartearen baliabideak eta baita eskarmentua ere Betti Gotti euskara kultur elkarteari eskaintzea.
- Orain arte Irun Irutenek erabili duen egoitza Betti Gotti euskara kultur elkartearen esku jar dezan ahalbidetzeko eskaria egitea Irungo Udalari.

Irunen, 2014ko maiatzean